



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, 2017KO MARTXOAREN 6AN JURISDIKZIO ETA TXAPELKETA BATZORDEAK ALDABIDE KIROL ELKARTEAREN KONTRA HARTUTAKO ERABAKIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA GAITZESTEN DUENA.**

---

Espediente-zenbakia: 29/2017

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- 2017ko martxoaren 20an, Aldabide Kirol Elkarteko Pilota arloko lehendakariak eta arduradunak aurkeztutako errekurtsoa jaso zen, Jurisdikzio eta Txapelketa Batzordeak 2017ko martxoaren 6an aurkeztutako errekurtsoarean kontra. Haren bidez, Aldabide Kluba zigortu eta taldea Euskal Herriko Kluben arteko txapelketatik kanporatzea erabaki zen, eskuz binakako gazteen kategorian. Era berean, eliminatutako taldeak jokaturako partiden emaitzak baliogabetzea eta Euskal Herriko Kluben arteko txapelketaren hurrengo denboraldian (2017-2018) kategoria eta modalitate horretan parte hartzeko ezintasuna jasotzen ziren (baita horretarako lekua lortuta ere).

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtsoa izapidetzea erabaki zuen eta kasuan kasuko espedientea eskatu zion Euskadiko Euskal Pilota Federakundeari. Era berean, alegazioak egiteko izapidea eman zion federakundeari berari eta AÑORGA K.K.E.ri, egokitzat jotzen zituzten eginbideak aurkezteko aukera emanez.

**Hirugarrena.**- 2017ko apirilaren 6an, Euskadiko Euskal Pilota Federakundeak eskatutako espedientea bidali eta errekurtsoarekiko alegazioak aurkeztu ditu. Errekurtsogileak dio aurkako klubari behar bezala ohartarazi



ziotela partidura agertuko ez zirela, baina Federakundeak adierazi du ez zuela datu hori ezagutzen, baita irekitako zehapen-espedientearen hasieran alegaziorik egin ez dutela ere, alegazioak KJEB bidez aurkeztu baitituzte. Espedientearen ez da Federakundeari egindako jakinarazpenik agertzen eta, partiduaren ondorengo aktan, aurkako klubeko pilotariak eta epailea bera agertu zirela adierazten da. Hori dela-eta, Federakundeak ondorioztatu du ez agertzeko asmoaren jakinarazpenik egin ez zela, eta ados dago ezarritako zigorrarekin, txapelketari aplikatu beharreko erregelamenduaren 5. artikuluari jarraiki.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehena.**- KJEBk du errekurtsio hau aztertzeke eskumena, hori xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.a) artikulua, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikulua.

**Bigarrena.**- Errekurtsogileak berak dioen moduan, ez dago zalantzarik ALDABIDE KIROL ELKARTEA ez zela agertu 2017ko otsailaren 26ko Euskal Herriko Kluben arteko Txapelketan, eskuz binakako gazteen kategorian.

AÑORGA K.K.E.ri eta Euskadiko Euskal Pilota Federakundeari ez agertzeko asmoaren jakinarazpena nahikoa izan zen ala ez da, orain, eztabaidaren gako.

Errekurtsogileak alegatu du berak argi eta garbi adierazi ziola Añorga Klubeko pilota-arduradunari Aldabide Klubeko pilotariak eta horien ordezkioak txapelketara joango ez zirela, eta ulertzen du, modu horretara, behar bezala justifikatuta geratzen zela 2017ko otsailaren 26ko txapelketara ez agertu izana.



Añorga Klubak ez du alegaziorik egin zentzu horretan.

Euskadiko Euskal Pilota Federakundeak alegatu du ez zuela ez agertzeko asmoaren berri izan eta, 2017ko otsailaren 26ko aktan islatzen den moduan, adierazi du Añorga Klubeko pilotariak eta epailea bera txapelketara bertaratu zirela. Hori dela-eta, argi dago Klub errekurtsogileak jakinarazpenik egin ez zuela.

**Hirugarrena.**- Euskadiko Euskal Pilota Federakundeak larrizat jo du ez agertze hori, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 110. artikuluan aurreikusten den moduan. Hori dela-eta, taldea txapelketatik kanporatu, ezabatutako taldeak jokatutako partidetak emaitzak baliogabetu, eta klubak hurrengo denboraldiko (2017-2018) Euskal Herriko Kluben arteko txapelketan kategoria eta modalitate berean parte hartzeko ezintasuna (baita horretarako lekua lortzen badu ere) ezarriko zaio, Euskal Herriko Kluben arteko Txapelketaren Araudian (5. art.) xedatutakoarekin bat etorritik, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 112. artikuluan jasotzen dena kontuan hartuta.

Honako hau dio Euskal Herriko Kluben arteko Txapelketaren Araudi horretako 5. artikulua (2016-2017):

#### 5.1. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Ez agertzea partida jokatzen ez hastea kontsideratuko da, arrazoia edozein dela, elkarteari dagokionak ez badira edota beroketan egindako lesioak. (...)

Talderen batek ez agertzeren bat egin behar duela zuzen jakinaraziz gero, aurkako taldeari partida irabazitzat emango zaio pilotalekura azaldu beharrik gabe.



Ez agertzea zuzen jakinarazitzat hartzeko, ondorengo protokoloa bete beharko da:

- Klubak ez agertzea egingo duela idatziz azalduko dio EEPFeri eta federazioak bere gain hartuko du aurkariari jakinarazteko ardura. Idatzia aurkezteko epea ostiraleko 13:00ak izango dira.
- Ostiraleko 13:00etatik aurrera, horrela jokatu beharko da: ez agertzea egin behar duen klubak dagokion partida hasi baino gutxienez lau ordu lehenago, SMS edo Whatsapp bitartez jakinarazpen bat helarazi beharko dio aurkariari. Era berean, EEPFeri jakinarazpen horren kopia helarazi beharko dio, jasota gera dadin.

Halaber, aurkariari telefonoz deitzea aholkatzen da, jakinarazpena jaso duela ziurtatu eta pilotalekura ez dela joango bermatzeko.

Protokolo hau betetzen ez duten ez agertzeak jakinarazi gabetzat hartuko dira eta, beraz, ez agertzea egin duen taldea lehiaketatik kanporatuko da.

(.....)

Jakinarazi gabeko lehenengo ez agertzea, jakinarazitako bigarren ez agertzea edo alineazio okerra egitea:

- Taldea txapelketatik at geratuko da.
- Kanporatutako taldeak egindako partiden emaitzak bertan behera utziko dira.
- Klubak ezingo du kategoria horretako espezialitate horretan parte hartu Euskal Herriko Kluben arteko Txapelketaren hurrengo denboraldian (2017-2018) nahiz eta horretarako postua lortu, eta postu hori Lurralde Txapelketako hurrengo taldeari eman beharko dio, eta horrela hurrenez hurren.



**Bosgarrena**.- Espedientea, araudia eta aurkeztutako alegazioak aztertu ostean, errekurtoa gaitzestea eta zehapena konfirmatzea erabaki da, honako arrazoi hauek direla eta: Errekurtsogileak justifikatutzat eman zuen 2017ko otsailaren 26ko partidura ez agertzeko asmoa, Añorga K.K.E. klubeko pilota-arduradunarekin harremanetan jarri zelako (haren kontra jokatu behar zuten partida). Euskal Herriko Kluben arteko 2016-2017 Txapelketaren Araudiko 5. artikulua araberak, kontrako taldeari ez ezik, Federakundeari ere jakinarazi behar zaio ez agertzea. Hori ez da horrela izan, errekurtsogileak berak eta Federakundeak alegatu dutena kontuan hartuta. Kasu horietan, artikulua horrek honako hau aurreikusten du: *«Protokolo hau betetzen ez duten ez agertzeak jakinarazi gabetzat hartuko dira eta, beraz, ez agertzea egin duen taldea lehiaketatik kanporatuko da»*.

Talde arau-hauslea kanporatzeaz gain, arau-hauste bat eginez gero, kanporatu den taldeak jokatutako partiduen emaitzak ere baliogabetzen dira. Gainera, Klubak ezingo du kategoria horretako espezialitate horretan parte hartu Euskal Herriko Kluben arteko Txapelketaren hurrengo denboraldian (2017-2018) nahiz eta horretarako postua lortu, eta postu hori Lurralde Txapelketako hurrengo taldeari eman beharko dio, eta horrela hurrenez hurren.

Azaldutako hori guztia kontuan hartuta, Aldabide Kirol Elkarteak Añorga K.K.E. Klubeko pilota-arduradunari egindako jakinarazpenak araudi aplikagarrian zehaztutako protokoloa betetzen ez zuela eta, beraz, ez agertze hori jakinarazi gabekotzat jo behar dela ondorioztatzen da. Era berean, Jurisdikzio eta Txapelketa Batzordearen Ebazpena, Aldabide Kluba 2017ko otsailaren 26an ez agertu izanagatik zigortzen duena, bat dator araudi aplikagarriarekin.



Azkenik, errekurtsogileak araudi aplikagarria ezagutzen ez zuela alegatu du Jurisdikzio eta Txapelketa Batzordeak ezarritako zigorra aplikatu ez dadin. Haren bidez, taldea txapelketatik at geratu eta jokaturako partiduen emaitzak baliogabetzeaz gain, hark ezingo du kategoria horretan parte hartu hurrengo denboraldian (2017-2018), ezta horretarako postua lortuta ere. Zentzu horretan, honako hau dio Kode Zibilaren 6.1. artikulua: «*Legeak ez ezagutzeak ez du legeok ez betetzetik desenkusutzen*».

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

## EBAZTEN DU

Aldabide Kirol Elkarteko lehendakariak eta pilota-arduradunak Jurisdikzio eta Txapelketa Batzordearen 2017ko martxoaren 6ko ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtsua gaitzestea. Bertan, Aldabide Kluba zigortu eta taldea Euskal Herriko Kluben arteko txapelketatik kentzea erabaki zen, eskuz binakako gazteen kategorian. Era berean, eliminatutako taldeak jokaturako partiden emaitzak baliogabetzea eta klubak Euskal Herriko Kluben arteko txapelketaren hurrengo denboraldian (2017-2018) kategoria eta modalitate horretan parte hartzeko ezintasuna jasotzen ziren, baita horretarako postua lortuta ere.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsua aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean,



jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 29a.

**JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA**  
Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea